

LOS PODERES DE LOLO

# Alba Rico: “Umorea ezinbestekoa da bizitzan. Beharrezkoa da barre egitea eta pentsatzea”

JULEN NAFARRATE AURREKOETXEA

“Hauek dira nire printzipioak, baina ez bazaizkizu gustatzen, beste batzuk dauzkat”, esan ohi zuen zorrotz Groucho Marxek. Ironia askorentzat, errealitate beste batzuentzat; badira euren printzipio eta ideiak beste ezerrren gaineratik lehenesten dituztenak, hori zure ibilbide profesionalarentzat kaltegarria izan daitekeen arren. Horren adibide zen Lolo Rico telebista zuzendari eta kazetaria, La bola de cristal programa ezagunaren zuzendaria. Haren inguruko *Los poderes de Lolo* dokumentala estreinatu du haren seme Miguel Alba Ricok, Itziar Bernaola Serrano eta Nino Fontán Alleneekin batera.

Miguel Alba Rico ez dago ohitura hedabideetan agertzeraz, “lotsa handia” ematen diola aitortzen du: “Ni muntatzailea naiz, eta normalean jendeari azaldu behar diot zehazki zein den nire lana. Loloren semea ote naizen galdetzen didatenean, inoiz ez dakit zer esan, isilik geratzen naiz. Niretzat hau guztia esfortzu bat da, ia-ia psikologoaren jabea bezala”.

*La bola de cristal* 1984tik 1988ra egon zen martxan espainiar telebistan, eta belaunaldi oso baten erreferente bihurtu zen. Apurtzailea izan zen, garratza, subertsiboa. Adjektiboak soberan ditu: orijinala, dibertigarria, kritikoa... Inork egiten ez zituen gauzak egin zituzten, Lolo Rico zuzendari zutela, askatasun oasi bat aprobetxatuta. Errepikaezina izan zen? “Ez dago errepikatzerik. Programak osagai ugari zituen: zoramena, iritzia... Baina gaur egun jendeak ez du iritzirik nahi”. Umorea eta iritzia nahasten zituen, eta hori ez zen horren erraza: “Umorearen bidez dena kritikatzeko zuten: programa bera, telebista... Umorea ezinbestekoa da bizitzan. Nik uste beharrezkoa dela barre egitea eta pentsatzea”.

Eta, noski, zentsura ere pairatu zuen, bere senak agintzen ziona jarraitze hutsagatik. Printzipioak aukeratu zituelako, beste ezerrren gaineratik: “Bera zentsuratzen zuten errebeldea zelako, besterik ez. Lolok nahi zuen gizarte libre bat, baina garai horretan horrek ez zuen batere interesatzen”.



IÑAKI LUIS FAJARDO

Miguel Alba Ricok dokumentala egin du Lolo Rico haren amaren istorioa kontatzeko asmoz.

Lolo Ricoren ibilbide profesionala ezagunagoa da; ez horrenbeste bere alde pertsonala. Eta, hori ere kontatzen du dokumentalak, izenburuak dioen bezala, Lolok botere ugari zituelako. Telebistan apurtzailea izan bazen, etxean, ere bai. “Bere ingurua oso kontserbadorea zen, eta

hortik irtetea erabaki zuen, aurreko guztiarekin apurtuz”. Hasiera batean haur literaturarekin hasi bazen ere, laster iratxo eta ipuinak alde batera utzi, eta modu basatian bestelako arlotan mugitzen hasi zen: “Alderdi komunistan afiliatu zen, frankismoaren aurka borrokatzen...”. Eta,

hori guztia emakumea izanda, horrek zekarren guztiarekin: “Emakume izateak garai horretan esan nahi zuen ez zenuela eskubiderik, dirurik... Bere senarrak alde egin zuen eta ez zuen beharrik dirua pasatzeko. Zazpi seme-alabarekin utzi zituen, sosik gabek”. Dokumentalean agertzen den bezala, “nekatu zen bere senarrak esplotatzeaz, eta erabaki zuen lan bat bilatzea, enpresari batek esplotatzea”.

Zinemaldian filma aurkezteaz oso pozik agertu da Rico Alba, gainera, haren amak lotura estua zuelako Donostiarekin. Bertako bizilaguna izan zen hainbat urtez. “Nino, Itziar eta hirurok proiektu honekin hasi ginean gure helburua zen Zinemaldian estreinatzea. Amets utopikoa zen gure lana hautatzea, eta begira”. Lolo ere pozarren egongo litzateke, bere semearen arabera: “Alfonbra gorritik pasatzen garenean, seguru nago nirekin egongo dela modu batean edo bestean. Gainera, eramango ez banu, seguru haserretuko litzakeela, eta okerragoa zen Lolo haserre zegoenean!”.



## EXTRAMISION: BEGI DISTIRATSUEN EHIZAN

JESSICA SARAH  
RINLAND

2024.09.17  
→ 2025.01.12

Erakusketa  
Exposición  
Exhibition

Erakusketa-aretoa 2  
Sala de exposiciones 2  
Exhibition hall 2





# TOPALEKUAK

elena aitzkoa

josu bilbao

eduardo chillida

laia estruch

sheroanawe hakihiwe

Juf. bea ortega y leto ybarra

christian salablanca

marianna simnett

TABAKALERA  
erakusketa / exposición / exhibition




2024.06.21  
— 2024.10.06